

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3622

*1173/2025 EBAZPENA, uztailaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez bi ebazpen hauek aldatzen baitira: 867/2025 Ebazpena, maiatzaren 29koa, zeinaren bidez argitaratzen baita Egonkortzeko EPE-ko lehiaketa-oposizioko sistemaren eranskinean sartutako esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, administrariaren kategorian, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik, eta 868/2025 Ebazpena, maiatzaren 29koa, zeinaren bidez argitaratzen baita Egonkortzeko EPE-ko lehiaketa-sistemaren eranskinean sartutako esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, administrariaren kategorian, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 29ko 867/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin zen Egonkortzeko EPEko lehiaketa-oposizioko sistemaren eranskineko esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, administrariaren kategorian, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 29ko 868/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin zen Egonkortzeko EPEko lehiaketa-sistemaren eranskineko esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, administrariaren kategorian, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik.

Ebazpen horietako Bigarren ebazpen-zatiak honako hau ezartzen du: «Esleipendunek hilabeteke epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera».

Ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dira 2025eko ekainaren 9an eta 2025eko uztailaren 9an amaituko da lanpostuaz jabetzeko epea.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, honako hauek arautzen du 32. artikulua 1. apartatuan: «Administrazioak, ofizioz edo interesdunek eskaturik, luza dezake ezarritako epea, manuren batek kontrakoa ez badio, komenigarritzat jotzen bada eta hirugarren batzuen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Epearen erdia izan daiteke luzapena, gehienez ere. Epea luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi behar zaie».

Horren arabera, esandako maiatzaren 29ko 867/2025 eta 868/2025 Ebazpenak eman direnez eta esleipendunak laneratzeko eta horren kudeaketa egiteko beharrezkoa denez, aldatu egingo da esleitutako destinoez jabetzeko epea eta 15 egunez luzatu. Hortaz, 2025eko uztailaren 24an amaituko da.

Horregatik guztiagatik, aipatutako 867/2025 eta 868/2025 Ebazpenak aldatu egin behar dira, ebazpen honen ebazpen-zatian adierazitako moduan.

Indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalmenak baliatuz,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea 867/2025 Ebazpena, maiatzaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratu baitzen Egonkortzeko EPEko lehia-keta-oposizioko sistemaren eranskinean sartutako esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, administrariaren kategorian, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik, eta 868/2025 Ebazpena, maiatzaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratu baitzen Egonkortzeko EPEko lehia-keta-sistemaren eranskinean sartutako esleipendunen estatutupeko langile finkoaren izendapena, administrariaren kategorian, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan izanik, biak ere Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2025eko ekainaren 9an argitaratutakoak. Hain zuzen ere, lanpostuaz jabetzeko epea aldatzen da, 15 egunez luzatzeko, uztailaren 24ra arte.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, baliozkoak izango dira aipatutako maiatzaren 29ko 867/2025 eta 868/2025 Ebazpenetako xedapenak, baldin eta ebazpen honek egindako aldaketak eragiten ez badie.

Hirugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutuak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 3ko 1173/2025 Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.